

18/98

Injustiziara bidaia

15 hilabete daramatzate 18/98 sumarioko auzipetuek denbora eta dirua erruz galtzen. Eta fiskalaren nahia betez gero, askatasuna ere galduko dute. Gezurra dirudi pazientzia aspaldi galdu ez izana. Aldiz, Espainiako justizia administrazioak galdu duena lotsa da. Hasieratik garbi zegoen epaiketaren izaera politikoa, baina ez dute erreparorik izan inputatuen eskubideak inpunitate osoz behin eta berriro bortxatzeko. Epaiketa amaierara iritsi da eta epaia jakiteko hilabete batzuk itxaron beharko dituzte. Baina zigor ofizialaren zain, dagoeneko ederki zigortu dituzte 52 auzipetuak. Haiekin egin dugu Madrilerako txangoa. Euren 50. bidaia da.

Nagore Irazustabarrena

GOIZALDEKO 04:00ETAN iritsi da furgoneta Hernanira. Bertan bi lagun jaso eta Urnietara doa, eta handik Villabonara. Gero, Madrilera zuzen. Astelehenero dozena erdi furgoneta abiatzen dira Euskal Herriko hainbat puntutatik Madrilera. Eta asteazken iluntzean egingen dute buelta. Auzipetuek eurek gidatzen dute txandaka. Hasieran autobusa antolatzen zuten, baina konplikatu zen inputatu guztiak jasotzea. Horregatik hobetsi zuten furgonetan joatea.

Denek Boceguillasen (Gaztela Leon) egingen dute bat, bertan gosaltu eta berriro bideari heltzeko. Ederki ezagutzen dute bidea eta denetik egokitu zaie 15 hilabete hauetan: hotza, beroa, elurra... “Aurten elur gutxi dago, iaz Somosierra inguru hauek askoz zuriago zeuden”.

Bidearen monotonia Madrilera iristean hausnartzen da. “Duela bi aste hau ez zegoen horrela”. M-30eko obra amaigabeak dira. 08:00ak aldera iritsi gara Casa de Campora; furgonetek bat egin dute berriro. Orain arte bertan

izan da epaiketa, Auzitegi Nazionalak epaiketa handietarako propio prestatutako areto berezian. Baina M-11ren epaiketa hasi denean, 18/98koek Genova kaleko ohiko egoitzara joan behar dute.

“Gure” Auzitegi Nazionala

Ordu batzuk lehenago, bidaia hasi baino lehen “ikusi al duzue ‘gure’ auzitegia telebistan?” bota du auzipetuetako batek. Casa de Campoko aretoa ez dute faltan botako, noski.

Auzipetu askok ez zuten

elkar ezagutzen 18/98

amesgaiztoa hasi zenean

eta egoerak elkartzera

behartu zituen. Orain fiskaltzak

elkartasun hori euren kontra

erabili du bere argudioan



Fiskalaren zigor eskaerak (urtetan)

INPUTATUA	HASIERAKO ESKAERA	AZKEN ESKAERA
KAS-ENPRESAK-FINANTZAKETA		
Juan Pablo Dieguez	12	7
Bixente Askasibar	15	9
Iker Beristain	15	9
Jose Garcia Mijangos	12	9
Inma Berriozabal	12	7
Joxean Diaz Urrutia	12	7
Joxean Etxeberria	19	13
EGIN (Egin Irratia, Orain, Ardatza)		
Carlos Trenor	19	11
Xabier Alegria	51	13
Manuel Intxauspe	16	11
Isidro Murga	16	19
Patxi Murga	48	19
Maite Mendiburu	14	11
Xabi Otero	16	4
Javier Salutregi	12	7
Teresa Toda	10	7
Jose Luis Elkoro	48	19
Iñaki Zapiain	16	4
Jesus Mari Zalakain	48	19
Jose Ramon Aranguren	48	Gaixo
Pablo Gorostiaga	16	11
XAKI		
Mikel Egibar	15	9
Nekane Txapartegi	12	9 (piezatik bereizia)
Jose Ramon Antxia	15	9
Mikel Korta	12	9
Jokin Gorostidi	15	Hila
Joxe Mari Olarra	15	9 (piezatik bereizia)
Elena Beloki	15	9
Miriam Campos	15	9
Iñigo Elkoro	12	Gaixo
EKIN		
Imanol Iparragirre	15	9
Unai Hernandez	15	lhesi
Patxi Gundin	12	9
Txema Matanzas	15	9
Ruben Nieto	15	9
Ana Lizarralde	15	9
Olatz Egiguren	12	9
Paul Asensio	15	9
Oiakue Azpiri	12	7
Marta Perez	12	7
Juan Mari Mendizabal	15	9
Peio Jon Sanchez	15	Preso Frantzian
David Soto	15	9
Jaime Iribarren	15	9
Xabier Balanzategi	15	9
Pako Aranburu	15	Preso Frantzian
Natale Landa	12	9
Xabier Arregi	12	9
Iker Casanova	12	9
JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA		
Mikel Aznar	10	7
Iñaki O'Shea	10	7
Sabino Ormazabal	10	7
Mikel Zuluaga	10	7
Iñaki Urruñuela	12	-
Olatz Altuna	10	7
Fernando Olalde	10	7
Alberto Frias	12	7
Mario Zubiaga	12	7
GUZTIRA	927	484

Pepe Rei eta Ramon Uranga auzipetuak ez dituzte epaituko, osasun egoera larria dela medio.

Baina toki horretara ohituta zeuden. Orain ingurua poliziaz josita dago, tanke eta guzti. “Gu geundenean, ez zen horrelakorik”. Genova kaleko auzitegira joateak buruhausteak dakartza eurentzat eta horregatik epaiketari toki berean, ostegun eta ostiralean egiteko prest zeudela adierazi zioten epaimahaiari. Baina eskaera ez zuten kontuan hartu. Epaiketari hasi zenetik horrela izan da beti, hots, auzipetuen eskaerak ez dituzte behin ere gogoan izan. Esaterako, sumarioak bost pieza bereizi izanda, ez da logikoa auzipetu guztiak epaiketa osoan bertan egotera behartzea eta bakoitzari dagokion pieza lantzean baino ez joatea eskatu zuten. Alferrik.

Casa de Campon metroa hartu eta 09:30ak baino lehen inputatu guztiak Auzitegi Nazionalaren parean daude. Aurreko astetik dakite goizeko sesioa zalantzan dagoela, defentsako abokatueta batek beste epaiketa bat duela eta hura atzeratzea eskatu badu ere, erantzunik ez du oraindik jaso.

Kanpoan ia ordubete zain egon ondoren, abokatuak jakinarazi die oraingoz bertan behera geratzen dela saioa eta 11:45ean itzuli behar dutela. Handik gutxira sms bitartez

Etiket irten direnetik

hamabi ordu pasa direnean

abiatu da epaiketa. “Orain arte

ikusi duzuna urte eta erdian

bizi izan dugunaren laburpena

da: denbora galtze hutsa”,

dio Teresa Todak

esan diete epaiketari berriro arratsaldeko 16:00etan ekingo diotela. Alferrik esnatu dira goizeko 03:00etan.

Batzuek furgonetan dauden trasteak hotelera eramateko aprobetxatu dute tarteak; beste batzuek lo kuluxka egiteko; Arco bisitatzerako joan denik ere bada. Baina 14:00etan denak bazkaltzeko elkartu dira.

Zein kartzela nahiago duzu?

Marta Perez eta Oiakue Aizpirik esan digute fiskalak biak nahastu zituela, epaimahaiko kideetako bat orain dela gutxi konturatu dela bi Elkoro daudela auzipetuen artean, AVTko (Asociación de Víctimas del Terrorismo) abokatueta batek siesta ederrak botatzen dituela auzitegian eta mozkorra ere azaldu izan dela saioaren batera. Gero, emakumezkoen espetxeez hitz egiten hasi dira, Euskal Herri-



Epaiketa eta lana ezin uztartu

Amaigabea dirudien epaiketa honen erruz, inputatuak denbora eta diru asko galtzen ari dira. Alde ekonomikoari dagokionez, batetik, Madrilera joan-etorri bidaiak, lo egiteko tokiak, jateak... gastuak dakartza. Baina, bestetik, astelehenetik asteazkenera ezin dute lanik egin eta horrek galera ekonomiko are handiagoa dakar.

Bide penaletik doazen epaiketetan, langile inputatuek legezko baimena dute epaiketara joateko eta saihestu ezin den betebeharr publikoa izaki, enpresek ezin dute hori eragotzi. Langileak, beraz, epaiketara joateko baimena du, baina legeak ez du bermatzen soldata kobratuko duenik eta bere lan baldintzak okerrera egingo ez duenik. Langileak egun gutxitako epaiketara joateko bermerik ez badu, are gutxiago aurrekaririk ez duen 15 hilabeteko epaiketa honen kasuan.

Makro-epaiketak urtea bete zuenean Olatz Altuna inputatuetak batek euren lan egoeraren azterketa egin zuen *Iraultzen* aldizkarian argitaratutako artikuluan.

Azterketaren arabera, askotariko lan egoerak topa daitezke inputatuen artean: bederatzi jubilatatu, bederatzi langabetu, bi bajan, bi preso, sei langile autonomo eta hogeita lau euren enpresekin nola-baiteko akordioa iritsi direnak.

Langabetuen artean gehienek epaiketaren erruz galdu dute lana. Eta batzuk herrietako sostengu kutxetara jo behar dute aurrera egiteko.

Autonomoen egoera ere ez da batere erraza. Astelehen goizean, auzitegiaren aurrean zain dauden bitartean, autonomo moduan ari

den inputatuetak batek dei bat jaso du. Bezero bat da. Nola azaldu bezeroari astelehenetik asteazkenera lanik ezin duzula egin? Urtetako emaitzak arriskuan dituzte langileok. Gero eta zailagoa da eurentzat bezeroei eutsi eta asteko gainerako egunetan ohiko lan erritmoa mantentzea.

Lantokietan akordioa lortu dutenen kasuak ere askotarikoak dira. Ostegun eta ostiraletan lan egiten dute batzuek. Baina lehen hiru egunetako hutsunea betetzeko asteburuetan ere lan egin behar du zenbaitek (hots, aste osoa epaiketak eta lanak betetzen dute kasu horietan). Eta Madrilan dagoen bitartean lanean aritu behar duenik ere bada.

Garbi dago lan jarduera normalizatua ezinezkoa dela inputatuen egoeran. horregatik askok lan etetea eta epaiketaren amaieran berriro heltzea hitzartu dute euren enpresekin.

Dena den, hasieran epaiketak hilabete batzuk iraungo zituela aurreikusten zuten eta 15. hilabetea pasa da dagoeneko. Horregatik lantokietan lortutako akordioetako batzuk kolokan ipini dira azken hilabeteotan.

Egoera honetan inputatuek biziki eskertzen dute herritarrengandik jasotzen duten laguntza ekonomikoa. Ezinbestekoa zaie gastuei eta galerei aurre egiteko. Baina zigor modu hau ere salatu nahi dute. Epairik oraindik izan gabe ere, hilabete honetan zigorrek hainbat forma hartu ditu epaituentzat eta lana modu normalizatuan egiteko ezintasuna da gogorrenetakoa.

koak kaxkarrak direla eta aukeratzekotan, Palentzia edo Salamancakoen inguruan iritzi onak jaso dituztela, Burgosekoa zaharkitua dagoela... Umorea behar da gero! “Zer nahi duzu? Ezin dituzu 15 hilabete haserre pasa. Amorrua kanalizatzen jakin behar da”. Egun hauetan esaldi berbera behin eta berriro entzungo dugu.

Bazkalostean, berriro metroan joan dira denak Auzitegi Nazionalera. Oraingoan bai,

etxetik irten direnetik 12 ordu pasa direnean, epaiketa abiatu da berriro. “Orain arte ikusi duzuna urte eta erdian bizi izan dugunaren laburpena da: denbora galtze hutsa”, dio Teresa Todak. 400 ordutik gora daramatzate epaiketan eta ia ezinezkoa da arreta uneoro mantentzea. Todak, hala ere, gorabehera guztiak koaderno batean jasotzen ditu. Betetzen duen laugarren koaderno dela esan digu. Besteek ahal den

Ezkerretik eskuinera, inputatuak furgonetatan Casa de Campora iristen; metro geltokian zain, Auzitegi Nazionalera joateko; eta Auzitegi Nazionalaren parean, Genova kalean, PPren egoitza nagusia atzean dutela. Astelehenean inputatuak alferrik esnatu ziren goizeko 03:00etan, epaiketa ez baitzen arratsaldeko 16:00ak arte hasi.





N. I.



N. I.



18/98



18/98

Zenbakiak mintzo

Zaila da epaiketak iraun dituen 15 hilabete luzeak laburbiltzea. Baina honako datuak aski esanguratsuak dira bide hori ulertzeko. Otsailaren 20an 18/98 makro-epaiketaren zenbakiak hauexek ziren:

✓ **50:** ordurarte inputatuek Madrila egindako bidaiak.

✓ **116:** epaiketa egunak.

✓ **185:** epaiketaren sesioak, hainbat egunetan goiz eta arratsaldez aritzen baitira.

✓ **410:18:00:** epaiketan guztira emandako ordu eta minutuak.

✓ **3:32:13:** batez beste egun bakoitzean epaiketan emandako ordu eta minutuak. (Kontuan hartu, egunean 8 ordu egiteko aukera dagoela).

✓ **8:12:22:** batez beste epaiketara joan-etorri bidaia bakoitzean emandako denbora.

moduan pasatzen dute denbora, prentsa edo liburuak irakurtzen, sudokuak egiten... Euren artean berriketan ezin dute aritu berehala Angela Murillo epaimahaiko presidenteak fiskalaren jarduna eten eta errieta egiten dielako. Une horietan, auzitegia baina, eskola dirudi.

Eta bazkaltzen ari ginela esandakoa baieztatu da: Juan Carlos Rodriguez Segura AVTko abokatuak berehala lo hartu du. Astebete beranduago orain siestan dagoen abokatuak horrelako “perlak” botako ditu akusazio partikularren txanda iristen denean: “Inork ez du azaldu nola den posible norbaitek aitaren-gandik jasotako 170 milioi fundazio bati ematea, fundazioak bere izena ere ez duenean”.

Elkartasuna delitu

Fiskalak bere ondorioak azaltzeko txanda da eta berriro arrazoiketa juridikoen falta agerian geratu da. Auzipetuen arteko elkartasuna ETArekin zuten harremanaren seinale delad dio Enrique Molinak. Auzipetu gehienek ez zuten elkar ezagutzen 18/98 amesgaiztoa hasi zenean eta egoerak elkartzera behartu zituen. Orain fiskaltzak elkartasun hori euren kontra erabili du bere argudioan (edo, hobe esanda, argudio gabezia).

20:30ean irten dira aretotik. Nekeak jota joan dira hotelera. Gaurko gaua salbuespena izango da. Aterpetxe batean pasa ohi dute

18/98

18/98

18/98

-



Epaiketako inputatuek elkartasuna jaso dute modu ezberdinetan eta eurek ere elkartasuna adierazi dute besteekiko. Ezkerretik eskuinera: Eusko Legebiltzarreko ordezkariak Madrila joan zirenekoa, joan den urriaren 2an; autoinkulpazio kanpainaren une bat; eta inputatuak De Juanaren egoera salatzen, irailaren 13an.

gaua, baina gaur ez dute tokirik bertan. Otor-
duak ere aterpetxean egin ohi dituzte, esan
digutenez, euren osasunaren kalterako. Horregatik janaria etxetik prestatuta ekartzen
dute sarritan. Egunero goizeko 07:00etan
kirola egitera irteten denik ere bada.

Ongi etorri 18/98 zirkora

Hurrengo goizean, beti bezala, auzipetuak
09:30erako iritsi dira auzitegira. Segurtasun kon-
trolla pasa eta saioa noiz hasiko zain daude. Baina
Iker Beristain preso espetxetik ekarri behar dute
eta 11:00ak aldera arte ez da iritsiko. Bitartean lis-

karren bat ere izan da polizia batek auzipetueta-
ko bati identifikazio txartela agerian eraman
behar duela modu txarrean esan dionean.

Iritsi da Beristain, auzipetu guztiak aretoan
dira eta saioa hasiera doala dirudi. Baina
minutu gutxira denak kanpoan dira berriro:
“Angela Murillok bota egin gaitu, barretxoak
ezin zituela jasan esanez”. Eskolako umeak
bailiran sentitzen dira, baina gehienek umo-
rez hartu dute eta denek pazientziatz. “Barre-
txoena aitzakia hutsa da, Nicolas Póveda
epaimahaikidea berandu iritsi delako urduri
jarri da presidentea”.

Jaso astero ARGIA etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian



Senitartekoak prestatzen

18/98ko familia handi honetako kide bakoitzak bere familia propioa du, bere historia, bere oinaze eta pozeekin.

Kasu batzuetan senitartekoak inputatuen artean daude: Iñigo eta Jose Luis Elkorro aita-semeen eta Isidro eta Patxi Murga anaien kasua da.

15 hilabeteotan batzuk joan dira. Jokin Gorostidi inputatua hil da eta epaituen sei guraso ere bai. Elena Belokik aita eta ama, biak galdu zituen aste gutxiren buruan.

Eta berriak ere etorri dira. Epaiaketak iraun duen bitartean Mario Zubiaga eta Jose Garcia Mijangos aita izan dira. Joseri zorionak eman dizkiogu auzitegian sartu baino lehen. Irati alabak 19 egun besterik ez ditu. Jose eta bere neskalagunak propio erabaki zuten haurra epaia iritsi baino lehen izatea. Astean hiru egunetan alabarekin ez egotea gogorra dela dio, "baina are gogorragoa litza-teke haurra ni barruan nagoela jaiotzea. Horrela haurdu-naldian bertan izan naiz eta lehen hilabeteetan haurra zaintzeko aukera izango dut". Irribarrean nabari da ez duela damurik.

Astelehen gauean, auzitegitik irten ondoren, afaltzen ari garela, familiaz hitz egiten hasi dira. Sei auzipetu

daude mahaiaren bueltan, emakumezkoak guztiak. Batek dio bere gurasoak lasaitu dituela orain arte, espetxean bukatzea ezinezkoa dela esanez. Beste batzuek diote dagoeneko senitartekoek nolabait asumitua dutela kartzelara joango direla. "Zer da hobe, gurasoak lasaitzea, kartzelara joango ez garela esatea, gero barrura bidaltzen bagaituzte jipoia hartzeko? Ala, alderantziz, okerrenerako prestatzen joatea, azkenean zer gertatuko den jakin gabe?", galdetzen diote elkarri. Baina erantzun egokirik ez dute.

Helduei egoera azaltzea zaila baldin bada, are zailagoa haurrei ulertaraztea. Natale Landaren kasua da (Nataleren bikotekidea, gainera, espetxean dago) edo Olatz Altunarena. Olatzek 3 urteko semea du. Epaietarako ondo prestatu duela dio: "Gauzak argi esan behar zaizkio, misteriorik gabe". Baina fiskalaren kalifikazioen ondoren animoak apaldu egin dira, kartzela gertuago ikusten da. "Abokatuari kalean zenbat denbora geratzen zaigun galdetu diot. Ez dakit zenbat denbora daukadan eta nola egin behar dudan, baina haurra horretarako prestatzen hasi behar dudala badakit".

Berriro barrura, soinu arazo txiki batzuk konpondu eta aurreikusitakoa baino ia bi ordu beranduago, azkenean, saioak aurrera egin du. Molina fiskalak bere txostenarekin jarraitu du. Gaurkoan ere argudio juridikoak ez dira inondik ageri eta horien ordez, besteak beste, honakoak bota ditu ustezko froga moduan: hauteskundeetan EHko kontu-hartzaile izatea, presoan aldeko martxan Bruselara joan izana, 1990ean Jarraiko asanbladan parte hartzea...

Surrealismoaren gailurra Mario Zubiagari buruz hitz egitean iritsi da: "Kultura maila altua du eta horrek frogatzen du oso ondo zekiela zer egiten zuen" bota du lasai asko Molinak. Atzo elkartasuna delitu zen; gaur kultura maila.

Quebec-etik abokatu bat etorri da behatzaile moduan eta bete-betean asmatu du epaiketa hau zirkoa dela esan duenean.

13:15ak aldera Murillo presidenteak saioa eten du arratsaldeko 16:30ak arte. Bazkaltzeko metroan joan-etorria beste behin egin eta han dira berriro inputatuak. Oraingoan minutu gutxi egin dituzte aretoan: eseri eta berehala arratsaldeko saioa eta asteazkenekoa bertan

behera geratu dira, Nicolas Póveda epaimahaikidea gaixo dagoela eta.

Berehala hutsik geratu da Auzitegi Nazionalaren ataria. Ez dute denbora (gehiago) galdu nahi. Lauzpabost ordu barru etxean izango dira; seguruenik, epaiketa inoiz amaituko ez denaren sentsazioarekin. Aste honetan ia denbora gehiago pasa dute errepidean auzitegian baino. "Epaiaketa behingoz amaitzea nahi dugu. Gero gerokoak", esan digu auzipetu batek.

Hala ere, gerokoak kezkatzen duela ezin du ezkatatu.

Larunbatean Bilbon burutuko den manifestaziora joateko deia egiten diote euskal gizarteari. Defentsa juridikoan ahalegin guztiak ipinita ere, ezertarako balio izan ez duela pentsarazten diete fiskaltzaren eta akusazio partikularren ondorioek. Epaiaketa politikoa da eta ahal den presiorik handiena egitea ezin bestekotzat jotzen dute. Zigor eredugarria ezarri nahi diete (ezarri diete dagoeneko); euskal gizartearen erantzun eredugarria eskatzen du horrek. 18/98 epaiaketako inputatuek behintzat pazientzia, indar eta elkartasun

eredugarria erakutsi dute hamabost hilabete-ko amesgaiztoan. **n**

Honakoak bota ditu fiskalak

ustezko froga moduan:

hauteskundeetan kontu-hartzaile

izatea, presoan aldeko martxan

Bruselara joan izana...

Gailurra Mario Zubiagari

buruz hitz egitean iritsi da:

"Kultura maila altua du eta

horrek frogatzen du oso ondo

zekiela zer egiten zuen"